

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2010eko azaroaren 10a. VIII. urtea. 2.120. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Xabi Otegi Saharar ekintzailea

«Sahararrek oso argi dute, eta eurena lortu arte azkenera iritsiko dira»

Tolosarra Aaiunen izan berri da. 18 kilometrora dagoen Gdeim Izika kanpalekuan izan zen, non sahararrek euren autodeterminazio eskubidea aldarrikatu duten

Otegiaren ustez, Marokok «inpunitatez jokatzeko du etengabe» eta sahararren «indarra, ilusioa eta kemen» nabarmentzen ditu **o 4-5**



Argazkilariak 'Lehen irribarraren bila' izena jarri dio argazki honi. SARA GOMEZ

Kartzelara bidean bizitakoa argazkien bidez

Sara Gomez argazkilaria amezketarraren 'Ilunpeko bidaiak' izeneko erakusketa ikusi daiteke Herri Zentroan Kultur Astearen baitan **o 2**

Ibarra, Sahara eta Ekuador Kultur Trukean bat eginda

Datorren astelehenean hasiko da Ibarako Udalak antolatutako Kultur Truke Astea herri desberdinetako lanak biltzen dituen erakusketarekin **o 6**

Aizkardi Mendi Elkartearen Argazki Rallya, igandean

Villabonako taldeak hirugarren urtez antolatu du lehiaketa; izena egunean bertan eman beharko da, 09:00etatik 09:30era eta argazkiak zehaztutako ibilbidean atera beharko dira **o 3**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maite

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Diodo laserra

Behin betiko depilazioa

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta
tarifa bereziak gazteentzat



Kartzelara bisitan joaterakoan sentitutako «hutsunea» argazkitan



'Irudien memoria' jarri dio izenburu bezala argazki honi. SARA GOMEZ

Sara Gomez amezketarrak 'Ilunpeko bidaiak' argazki erakusketa jarri du Kultur Astearen baitan

Imanol Garcia Amezketa

Amezketako Kultur Astearen baitan Sara Gomez herritarren argazki erakusketa ikusi ahal da Herri Zentroaren harreran. 'Ilunpeko bidaiak' izena jarri dio eta

bertan Irati Mujika preso amezketarrari eta Andoni Otegi preso leaburuarrari bisitat egitera joaterakoan biziutakoa islatzen du.

Diseinu grafikoko ikasketak hasi ondoren, Gomezek argazkigintza profesionalera bideratu du bere formazioa eta erakusketa-aren proiektua ikasketetan burutu beharreko lan batetik etorri zen. «Trakasleak esan zigun erreportaje bat egiteko barrutik kanpora», azaltzen du amezketarrak. «Hau da, istorioaren parte izan behar zinen, sentitzen zenuena kanpora



'Gure lurra gure eskuetan hartuz' izena du irudi honek. SARA GOMEZ

ateratzeko eta argazkiak ikusten zituztenek ere hori sentitzeko».

Erreportajeari ekiterakoan bere koadrilako Irati Mujika atxilotu berri zuten eta Gomezek gai horren inguruan egitea pentsatu zuen. «Herrian gertatutakoa adieraztea ondo egongo zela pentsatu nuen, familiak, lagunak eta ingurukoek kartzelaratzeko hori nola bizitzen ari ziren erakustea», azaltzen du Gomezek. «Iratiren kasua hartu nuen, baina erreportaje

nahi nuen pixka bat orokortu, hau da, presoen familiek eta lagunak kartzelara iristen diren arte, bide hori nola pasatzen duten, sentimenduen aldetik».

Bakoitzak bere hausnarketa

Gomezek gaineratzen duenez, «istorioaren parte izan beharra zegoen zuk nahi zenuena ateratzeko. Ez da berdina Etxerateko autobus batean joan ezagutzen ez duzun jendearekin eta argazkiak

ateratzea, edo zuk harreman pertsonala izanik sortzen zaizuna ateratzea. Istorioak harrapatu egiten zaitu eta beste buelta bat ematen saiatzen zara». Istorio horretan «sortzen den hutsunea» saiatu da islatzen Gomez argazkietan. «Jendea oso bakarrik azaltzen da, aulki mordo bat hutsik dagoela eta pertsona bakarra eserita, edo bidean zoazela paisaia guztiak arrotzak direla... Argazki irekiak dira, ikusten dituen bakoitzak bere hausnarketa edo bere istorioa egitea du».

Argazkiak kartzelara bidean egin ditu, bai Irati Mujikarengana joaterakoan Brievara (Avila, Espainia), bai Andoni Otegiarengana Caceresera (Espainia) joaterakoan. «Nik gertuko bi istorio erakutsi ditut, baina hainbat txokotan pasatzen diren istorioak dira», dio Gomezek. Bi presoek bazekiten erreportajea eginen ari zela eta «ondo iruditu zitzaion», gaineratzen du Gomezek. «Bidalizkien argazkiak kartzelara, baina ez zizkieten onartu eta ezin izan dituzte ikusi».

Zuri-beltzean jarri ditu argazkiak: «Zalantza nuen koloretan edo zuri-beltzean jarri, baina ikusi nuen gai honek konkretuki ez duela kolorerik». Erakusketa-aren aurkezpena egin zuten atzo eta jende ugari joan zen bertara. «Nik uste dut helburua lortu dudala eta jendea iritsi zaiola erakutsi nahi nuena. Gustura gelditu naiz», dio argazkilaria.

Txindoki hizpide Kultur Asteko gaurko mahai-inguruan

Erredakzioa Amezketa

Txindoki mendia protagonista izango duen mahai-ingurua antolatuko dute gaurko Amezketako Kultur Astearen. 20:30ean hasiko da, Herri Zentro berrian, *Txindoki*

kiko gora-beherak izenburupean, eta bertan parte hartuko dute Aralarko tontor horretara 24 ordutan igo eta jaisten markak egin dituzten lau mendizale: Luis Mari Larreta, sei aldiz igo zituena; Ibon Artola anoetarra, zortzi aldiz igo



Txindokik mendizale ugari erakartzen ditu. XABIER OTAEGI

Iragarki laburrak

LANA

- **Zaintzailea.** Ibarren emakumea behar da, umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 608 32 19 65.
- **Zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

SALGAI

- **Etxebizitza.** 96 m2 dituen etxebizitza ederra. 150 m2-ko ataria eta 55 m2-ko bordarekin. Bordak argia, ura eta bainugela ditu, eta txoko bezala jarri edo ospakizunak egiteko erabili daiteke. Tolosatik 5 minutura dago, izugarriko ingurunean

kokatu. Prezio berezia, jabearekin zuzenean. Interesatuak dei dezatela 670 20 52 99 telefono zenbakira.

- **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Lizartzan. Lehen solairua eta behea. Bakoitza 115 metro karratuko da. Etxearen atzealdean belardia eta borda ditu, 74 m2. Interesa duenak dei dezala 699 97 26 99 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

- **Ezkontza-eraztuna.** Villabonako Udaltzaingoen bulegoan ezkontza-eraztun bat utzi zuten iragan ostiralean, Etxe Ondo auzoan aurkitua. Galdu duena joan dadila Udaltzaingoen bulegora, astelehenean ostiralera.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

zituena; Iker Karrera amezketarra, hamaika aldiz igo zituena; eta Patxi Caminos abaltzisketarra, hamabi aldiz igo zituena. Bixente Gorostidi amezketarrak bideratuko du solasaldia.

Lagunartean enpresan sortutako apustu baten ondoren egin zuen Larretak bere marka. Ondoren, Artolak egin zuen marka, baina ez zen horren berri ezagutu komunikabideetan. Karreraren marka bai jarraitu zela prentsan eta marka hori hausteko Caminosen ahaleginak bezalaxe.

Kultur Asteko antolatzaileek azaldu dutenez, ikusmina sortzen ari da solasaldia herritarren artean. Besteak beste, zurrumurrua zabaltzen ari da Iker Karrekar Caminosen marka hobetzen saiatuko ote den. Gaurko mahai-inguruan zalantza hori agian argituko da.

Zuzenketa

Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzaren atzoko alean, 7. orrialdean, Albitzuri-Aundia txapelketaren albisteko argazkian azaltzen zen harri-jasotzailea ez zen Joseba Ostolaza, argazkieren oinean esaten zen bezala, Joxe Calvo ibartarra baizik.

Igandean Aizkardi Mendi Elkartearen 3. Argazki Rallya izango da

Izena egunean bertan emango da 09:00etatik 09:30era. Argazkiak zehaztutako ibilbidean atera beharko dira

Eneritz Maiz Villabona

Aizkardi Mendi Elkarteak 3. Argazki Rallya antolatu du. Igandean izango da eta parte-hartzaileek mendian zehar atera beharko dituzte argazkiak. Izena Aizkardi Aretxean eman behar da, Larrea Auzoa 18B helbidean hain zuzen ere.

Izena egunean bertan eman beharko da eta doan izango da. Inskripzio-mahaiak 09:00etatik 09:30era bitartean egongo dira zabalik. Argazki Rallyari hasiera 09:00etan emango zaio. Antolakuntzak aurrez esandako mendi ibilbidean ateratako argazkiak sartuko dira lehiaketan. Horretarako, bederatzi kilometrotako ibilbidea prestatu dute eta parte-hartzaileek lau ordu izango dituzte argazkiak ateratzeko.

Ez dago partaideentzat mugarik, honela, adin mugarik gabe, argazki kamera bat duen edonork parte har dezake.

Analogikoa edo digitala

Formatu analogikoa edo digitala erabiltzeko aukera izango da. Antolakuntzak aurrez emaniko gaiaren inguruan 36 argazki atera beharko dituzte.

Kamera digitala dutenek, euren argazkiak zenbaketa jarraitua dutela aurkeztu beharko dituzte, berauetako bat bera ere ezabatzea ez dute baimentzen. Irudi ez jarraituak dituzten txartelak txapelketatik kanpo geratuko dira.

Kamera analogikoekin parte hartzen dutenek, karretea entregatuko dute. Antolakuntza erbelatu eta autoreen negatiboak itzultzeaz arduratuko da. Euskarri digitala darabiltenek memoria txartelak entregatuko dituzte. Ordenagailuetara deskargatu ostean, parte-hartzaileei itzuliko zaizkie.

Ibilbidearen ostean antolakuntzari emaniko irudietatik hiru aukeratu beharko ditu pertsona bakoitzak eta 20x30 zentimetroko paperean aurkeztu beharko ditu. Hau, 30x40 zentimetroko kartulina beltz baten gainean jarriko da, aurrean titulua idatziz.

Antolakuntzak onarturiko argazki originalei, ukitu minimo batzuk egitea onartuko da, hala



lazio 2. Argazki Rallyan lehen saria eskuratu zuen argazkia da hau. HITZA

nola, enkoardaketak, distira maila, kontrastea, saturazioa... baina inolaz ere ez ukitu grafikoak. Lanak gehienez ere azaroak 20an 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Tolosako Karlis Argazki dendan.

Aurkezpen grafikoarekin batera, datu hauek dituen kartazal bat eraman beharko da. Kartazalaren kanpoaldean aurkezturiko hiru argazkien titulua, eta barnean autorearen datuak agertu beharko dira (izena, abizena, hel-

bidea, telefonoa eta e-maila, alegia).

Sariak eta erakusketa

Epaimahaiak, hiru argazki sari-tuko ditu. Argazki onenak, 150 euroko saria jasoko du. Bigarrenak, 100 euro eta hirugarren argazkiak 75 euroko saria izango du.

Publikoak ere, argazki guztien artean gustukoena bozkatzeko aukera izango du eta bozka gehien jaso dituen argazkiaren egileak, Amasako Iturri-Goxo Ja-

tetxean bi lagunentzako afaria izango du.

Ondoren, argazki guztiekin Gurea Zineman erakusketa bat jarriko dute. Hau, 27. Mendi Astearen baitan hilaren 22tik 26ra izango da. Lehiaketara aurkezturiko irudiak antolakuntzaren web orrian www.aizkardi.com argitaratuko dira. Aizkardi Hiri-garren Argazki Rallyaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero www.aizkardi.com helbidean eskuratu daiteke.

Loatzoren Xexili festa hilaren 20ean Anoetan

Erredakzioa Anoeta

Hilaren 20ean, larunbatean, Loatzo Musika Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek Xexili festa ospatuko dute. Festa honetan, Alegia, Altzo, Ibarra, Aduna, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil eta nola ez Anoetako ikasle, guraso eta herritarrek parte hartuko dute.

Ikasle eta irakasleak «ilusio handiz» prestatzen ari dira festa hau eta aste osoan zehar entseguak egiten ari dira festa hau ondo atera dadin. Loatzo Musika Eskolako irakasleek adierazi dute, «Eskerrak eman nahi dizkiegu festa honen antolaketan laguntzen ari diren guraso, Udaleta lagunei». Egun osoko festa antolatuko dute eta aurten, Anoeta herriari tokatu zaio musikari gazte guztien bilgune izateko.

Egun osoko festa

Egunari hasiera 09:30ean emango diote kalejirarekin. 10:15ean, ikasle, guraso eta herritarrei ongi etorria egingo diete. 10:30ean, 4, 5, 6, 7 eta 8 urteko ikasleentzat tailerak eta jolasak izango dira. Eta ordu berean, herriko txoko ezberdinetan musika joko dute ikasleek. 11:30ean, tailerreko ikasleen emanaldia plazan izango da. Eta 12:00etan, Dantza Gunea izango da plazan bertan.

Ondoren, Loatzoko txarangarri ibiliko da giro alaitzen. 13:00etan, ikasleen kontzertua eta jarraian, Batukada izango dira. 14:00etan txarangarekin batera denak bazkaltzera joango dira frontoira. Bazkal ondoren kantu gunea izango da eta 17:30ean, Kantuki taldearekin erromeria egongo da aurtengo Xexili egunari amaiera emateko.

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta larri Datatuok, Jaiantzeak... **Jatetxea**
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

zu zara berria
euskarazko komunikabideak, elkarlanean, berrieta, mugimenduan

hitza info

berria info

Gure produktuak gertutik ezagutu nahi badituzu edo harpidetu nahi baduzu:

www.zuzaraberria.info berrieta@info

2011 agenda
Dagoeneko salgai!

12€

• Liburu dendetan
• www.euskalherriko plaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Astelehenetik aurrera Ibarra, Sahara eta Ekuador batzen dituen Trukea

Hilaren 15ean, erakusketaren inaugurazioarekin, hasiko da aurtengo Kultur Truke Astea

Esti Ezeiza Ibarra

Datorren astean ospatuko da Ibarra Udalak antolatutako Kultur Truke Astea. Astelehenean, 19:00etan abiatuko da, Benito Izagirre kultur etxean ikusgai egongo den erakusketaren inaugurazioarekin, eta hortik aurrera, aste guztian zehar, hainbat emanaldi eta aurkezpen izango dira.

Udalak, Tolosaldea Sahararekin, Comunidad de Ecuatorianos Residentes en Ibarra eta Ibarrik Misisio Taldearen laguntzarekin antolatzen du ekimen hau. Honen adierazle da astelehenean inauguratuko den erakusketak, izan ere hiru herrialdeetako artistek hartuko dute parte: Felix Urrestarazu (Ibarra), Fernando Molina Sanchez (Ekuador), Iksas Batuz (Ekuador) eta Tolosaldea Sahararekin elkarteak, hain zuzen ere.

Felix Urrestarazu Donostian jaioa da, baina 1996tik, Ibarra Kultur Etxeko pintura tallerreko ikaslea da. 2005etik hona, hainbat erakusketetan hartu du parte: Beasaingo XIV. Aterpe pintura edizioan finalista izan zen; postalak egin ditu Ibarrik Misisio Taldearen GKEarentzat; Tolosako Txinparta elkarteeko pintura lehiaketa behin baino gehiagotan irabazi du eta irailako azokan parte hartu izan du.

Fernando Molina berriz, Ekuador



Hilaren 18an, te dastatze, henna tailerra... izango dira. SARA GOMEZ

↓ Egitaraua

ERAKUSKETA

■ **Azaroaren 16tik 26ra.** Felix Urrestarazu, Fernando Molina Sanchez, Iksas Batuz eta Tolosaldea Sahararekin elkartearen lanak ikusgai Kultur Etxean (10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara).

EKITALDIAK

■ **Azaroaren 16, asteartea.** *Una mujer saharai* dokumentalaren emanaldia izango da. Ikusizuna 19:00etan hasiko da Be-

nito izagirre kultur etxean.

■ **Azaroak 17, asteazkena.** Galo Urbinaren *Ayawaskaren* proiektioa, 19:00etan, Kultur Etxean.

■ **Azaroak 18, osteguna.** 17:00etatik 19:00etara bitartean, haurrentzako henna tailerra, arabiar idazkera tailerra eta te dastatzea izango dira Benito Izagirre kultur etxean.

19:00etan berriz, *Sahara mara-toia* diaporama eta hitzaldia eskainiko dute Kultur Etxean.

■ **Azaroak 19, ostirala.** *Escuela del Ecuador* dokumentala 19:00etan, Kultur Etxean.

dorko hiriburuan, Quitoan jaio zen duela 52 urte. Estatu mailako nahiz nazioarteko hainbat sari eta alpamen jaso ditu. 1978tik, publizitate agentzia eta enpresetan, ilustrazio eta diseinu lanak egiten dihardu. Bere lanak Amerika, Europa eta Asiako inguru batzuetako bilduma publiko eta pribatueta aurkitu daitezke.

Iksas Batuz 2009an sortuz herrien arteko elkartasuna eta errespetua bultzatzeko asmoz. Baita, herritarren oinarriko eskubideak babesteko, eta batez ere, hezkuntzarako eskubidea defendatzeko ere. Era berean, etorkinen integrazioa lagundu nahi dute. Honekin lotuta, hainbat ekimen ematen dituzte aurrera.

Erakusketako ekarpenak egin dituen azken elkarteak Tolosaldea Sahararekin da. Hau Mendebaldeko Sahararen eskubide eta biziraupenaren defentsarako borrokan lan egiten duen Gobernu kanpoko erakundea da. Bere helburua Tindoufen (Algeria) kokaturik dagoen saharar errefuxiatu kanpamentuetara mota ezberdinetako laguntza eramatea da. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar.

Dokumentalak, hitzaldiak...

Datorren asteartean dokumental batek irekiko du ekitaldien egitaraua. *Yo soy una mujer saharai* lanean 35 urteetan zehar harresi batengatik banandurik bizi diren saharar emakumeen errealitate ezberdinak erakusten dira. Hurrengo egunean, Galo Urbinak eginda, Espainian kokatutako ekuadortarren bizipenak biltzen dituen filma izango da ikusgai.

→ Laburrak

Urteko Ohiko Batzarra deitu du Uzturpek

IBARRA Uzturpe Ikastolako Errektore Kontseiluak guraso eta langile guztiei dei egiten die, hilaren 18an egingo duten Ohiko Batzarrean parte hartzeko. Bilera, 19:00etan izango da Aretu Nagusian. Bertan, besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dituzte: Errektore Kontseilua berritzea; 2010-2011ko aurrekontua; 2006-2011 Estrategia plana eta 2010-2011 ikasturteko plana eta mendi taldea.

Torreak Garagardo Pesta antolatu du hilaren 20rako

LEITZA Torre elkarteak beste behin ere Garagardo Pesta antolatu du. Aurtengoa berrikuntzekin dator. Izan ere, hilaren 20rako prestatutako festa honetan, afaria beharrean, bazkaria egingo dute. Bazkarirako txartelak jada salgai daude 26 eurotan, Torrean. Zortzi garagardo egongo dira dastatzeko, eta baita jatekoa ere.

Lore-eskaintzak egitera animatzen du Udalak

TOLOSA Udalak gaur Memoriaren Egunarekin bat eginez, herritarrek hausnartzera eta hildakoak gogoratzera gonbidatzen ditu Aranburu Jauregiko Lorategietan antolatu dituen ekitaldien bidez. 12:00etan udal ordezkariak bilduko dira, eta onartu berri duten mozioa irakurri eta lore-eskaintza egingo dute. Egun osoan izango du nahi duenak lore-eskaintza egiteko aukera, horretarako Udalak guztien eskura utziko dituen loreak erabiliz.

Hilberriak →



JESUS MARI MUNDUATE AIERDI

Herenegun hil zen, 66 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Anima zuzendaria: Juan M^a Olaetxea; gurasoak: Julian (†) eta Parnitika; anaia-arrebak: Begoña eta Jexux Bikuña, Izaskun eta Jesus Mari Markinez; ilobak: Agurtzane eta Aidan, Iker eta Aloña, Nagore; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN MARTIN Parroki Elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletak elizkizuna. Eskerrik asko guztiok aldeaz aurretik.

ATAUN, 2010eko azaroaren 10a

Helbidea: Toki-Eder, 2. ezk.

Oharra: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, aior horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Allatzea, gauz earra



Herrira begira
Aimar Sagastibeltza

Futbol jokalaria

Denboai probetxue atea", gurasoak sarritan atatu izan ditean aholku zaharra. Gomendio honek kaso iñez, gero Alacanten jokatuokun partidure biden boligrafo ta papera aurren jarritot, inspirazioa etorriko zaitezalakoan. Datu kurioso bat atea dot: denboraldi hontan kanpoko partiduta biden karreteran osota iñen dun distantzietze Leitze ta Tolosan arteko joan-etorrie 275 aldiz itten parekoa da. Zazpi eun osoak "preso"

pasa beharko dittu autobusen!! marka eh?

Ligai daokionez, hasera politte itten gabiltze. Azpimarratzekoak etxen jokatutako azken bi partiduk. Earrak izan die. Izane, Sant Andreu eta Castellon taldei 3000 ikuslen aurren irabazi izana aitz gustagarrie da. Nere kasun, harriagarrie badare daoneko bost posizio diferentetan jokatut (bi lateraletan, bi zentraletan eta erdilarri). Egie esan, jokatzen doten bittarten gutxinekoa da hoi.

Bestalde, ehize denboraldie bereziki krudela izaten ai dela esan behar. Izenik ezto emanen, beño kuadrilleko bat desesperatue sumatu nun, joa. Lehengoan bertan estakit ez ote zen Donostiko psikologo batengana joan aldarre animikoai buelta ematten launtze aldeajeje. Lasai motel...

Hau alde batea utziz, eskerrak Mikel Nievek denboraldie buka-

tu don, bere lorpenak kalifikatze-ko nere "lorategitik" hartzen nittun lorek eskasten ai baitzien jeje.

Pillotan, berriz, leitzarran arren jokatutako goi mallako partidun Abel izan zen nausi. Komeri beltzak sufrittu ondoren puntupunt dau berriz, ilusio berriz, iñor gutxik pentsatu bezela. Azkenaldin pronostikoa iñ ahala hanka sartzetela jakinda, finalen sartzeko aukera gabe ikustela esanet, kontrako efektoa eragin nahien jeje.

Azkenik, gaurdiño nere aipamenik jaso gabea den Jon Kanflanka "Mikone" segalarik hitz batzuk merezi dittola iruitzen zait. Urte askotako prestakuntza sakrifikatue bere sarik ematten ai zai; poz baño disgusto gehio eta dirusari beño gastu gehio dttion arren, arrakastatik pauso batea dauku ttikie.

Irudia ◊ Tolosa



IKT-AK EZTABAIDATUZ

Tolosaldeko Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Foroak, Lehiberrik, Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruko hitzaldia eskainiko du etzi 13:00etatik 14:00etara Tolosako TOPIC-en, Tolosaldeko II. IKT Astearen baitan. Bertan hizlari desberdinak izango dira: Jon Ander Torrea Lehiberriko lehendakaria, Angel Irastorza, Xabier Sabalza, Fernando Seco eta Ruben Cantera, hain zuzen. A.MAZ

Sailkapen orokorreko bigarren postuan dago Laskorain taldea

Portugaleteko Jarrirellos taldeari irabazi zion talde horitxoak etxetik kanpo jokatutako partida

Erredakzioa Tolosa

Etxetik kanpo jokatu zuen aste honetako partida Tolosako Laskorain ikastolako talde nagusiak, Portugaleteko Zubi-Alde kiroldegian hain zuzen ere, larunbat ilunabarrean. Azken urteotan Bilbo inguruko areto futbol jokalarien erretiro talde bihurtu den Jarrirellos izan zuen aurrez aurre Laskorainek. Talde beterrano eta esperientziaduna, etxeko partidei errendimendu bikaina ateratzen dien horietakoa. Larunbatean urdinez aritu ziren horitxoek berriz, zalantzez beteta egin zuten Bizkaia alderako bidaia euritsua, Gil, Murgi eta Elolaren bajek han-

kamotz utzi baitzuten taldea partida zail honetarako. Partida hasieran une hunkigarria bizitu genuen Zubi-Alde kiroldegira bertaratutako denok, Laskorain Kirol Elkarteko talde guztiek egin duten moduan, minutu bateko isilunea gorde baitzen Iñaki Mujika *Katu* ikastolako lagun eta irakasle paregabearren oroienean.

Bizkaitarrak hasi ziren partida bereganatzen

Behin epaileak hasierako txistua jo eta gero, bizkaitarrak izan ziren baloia eta jokoaren jabetza bereganatu zutenak. Hala ere, bizkaitarren gaizki ulertze bat probetuz Barriola kapitainak aurretik ipini zuten Javiren taldea inor konturatzerako.

Ameskeria hutsa izan zen ordea gol hura, Jarrilleros jaun eta jabe izan baitzen lehen zati osoan ikastolakoan kontzentrazioa eta tentsio hutsegitean erdian. Hone-la, pixkanaka aukerak sortu eta

markagailuari buelta ematea lortu zuten portugaletarrek hurrengo minutuetan. Atsedendaldira bitartean ez zen gol gehiagorik izan eta horixe izan zen ikastolakoentzako albisterik onena. Bigarren zatian ordea, partida erabat aldatu zen, Jarrillerosek berdinarraitu zuen, baina ikastolakoek defentsan ikaragarri hobetu zuten eta erasoan min handia egin zuten. Berdinketaren gola zertxobait kosta bazen ere, Andonik sartutako binakoaren ostean, Beñat, Txiki eta Jonikoren golek markagailua erabat aldatu zuten.

8 minuturen faltan atezain jokalaria erabiltzea erabaki zuten bizkaitarrek eta minutu batzuetan atzean sartu behar izan zuten ikastolako taldeak. Jarrillerosak 3. gola egin zuenean mamuren bat edo beste agertu bazen ere Jonikok egindako azken golak lasaitasuna eman zion taldeari azken minutuak patxadaz jokatze-ko.

◊ tolosa@hitza.info

3-1 galdu du Lauburuk Castro Urdialeseko taldearen aurka

Ibartarrek oso ondo jokatu bazuten ere Asturiasko epaileak «oso gaizki» aritu ziren Lauburukoaren iritziz

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako Lauburu taldeak 3-1 galdu zuen asteburuan Castro Urdialeseko jokatutako partida.

Ibarrako jokalaria oso ondo aritu ziren partida osoan zehar, baina Asturiasko epaileen lana

nabarmendu dute ibartarrek, «oso gaizki aritu ziren» eta.

Ibartarren gol bakarria Ion Garmendiak sartu zuen. Lehen zatiko gol bakarra izan zen.

Bigarren zatia lasai hasi zuten jokalariek eta berdinketa 23. minutuan iritsi zen. Hamar minutu beranduago iritsi zen Asturiasekoen bigarren gola.

Eguneko azken gola, hala ere, partida bukatu baino bost segundo lehenago iritsi zen. «Ahazteko partida horietakoa izan zen», diote ibartarrek.

◊ ibarraldea@hitza.info



HITZAK harpedun batentzat sarrera pareta du



LAGUN ARO GBC
Bizkaia Bilbao Basket
saskibaloi partida

Azaroak 12 ◊ Ostirala ◊ 20:30etan ◊ Donostiako Ilunben

hitza

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



HITZAK harpedun batentzat sarrera pareta du



Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako
Afari Txoua

Azaroak 12 ◊ Ostirala ◊ 21:00etan
Tolosako lurre elkartean



11°
9°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika. **Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info. **Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalde: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialde: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Eskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

HITZALDIA

- **Tolosa.** Gipuzkoako Frisoi Elkarteak eskainita, behi-esnari buruzko hitzaldia 17:00etan Kultur Etxean. Sergi Calsamiglia izango da hizlaria.
- **Tolosa.** Ahaztuak elkarteak antolatutako *Memoria egin, justizia egin* hitzaldia 19:30ean Lizardi elkartearen Martxelo Ota-mendik, Joxean Agirrek eta Martxelo Alvarezek hartuko dute parte.

DEIALDIK

- **Tolosa.** Urtero bezala Atsedena taldea Inauterien prestakete-kin hasi da. Hori dela eta taldean parte hartu nahi dutenei izena emateko eskatu dute eta horretarako bi telefono zenbaki eman dituzte: 679-87 05 08 edo 635-74 64 47. Izena emateko azken eguna.
- **Tolosa.** Abenduaren 4tik 8ra izango den Txuletaren Festarako txartelak eskuratu daitezke jada. Bazkariak abenduaren 5, 6 eta 8an izango dira eta afariak, berri, 4ean eta 7an. 45 euro baliu dute txartelak eta 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta edota tour@tolosaldea.net helbidera mezu bat idatzita eskuratu daitezke.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarrren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Ezagutu gure produktuak, doan

15 egunez gure produktuak doan ezagutzeko aukera dago; ongi etorri oparia ere jasoko duzu

Erredakzioa

Produktu berria gaur egungo errealitatera egokitu nahian, hel-du da 2003. urteaz geroztik abian dugun proiektuari aldaketak egiteko unea.

Alde batetik, batu egin ditugu, HITZAK dauden eskualdeetan, papereko egunkari lokalak (HITZAK) eta egunkari nazionala ('Berria'), eta, beste alde batetik, herrialdeetako HITZAK sortu ditugu zonalde bakoitzerako (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Ipar Euskal Herria eta Nafarroa). Herrialdeetako HITZAK ostiraletan argitaratuko dira; HITZA guztiekin batera joango dira, eta, HITZA jasotzen ez den tokietan, 'Berria' rekin batera. Gurean, hortaz, Tolosaldeko bizilagunek ostiraletan GIPUZKOAKO HITZA eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA jasoko dute, eta Leitza eta Aresoko bizilagunek, berriz, NAFARROAKO HITZA eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.

Eskaintza berri hau ardatz hartuta, harpidetza kanpaina zabal bat hasi dugu.

Jaso zure etxean eta erabaki

Proiektu berri honen nondik norakoak ezagutu nahi badituzu 'Berria' eta HITZA egunkariak zure etxean 15 egunetan doan jasotzeko aukera duzu. Eskaera egitera-koan, astebeteko epean eginez gero, ongi etorri oparia ere jasoko duzu.



Produktuak etxean jaso ahal izateko eskaera egiteko bide desberdinak dituzu. Batetik, herri ezberdinetan jarri ditugun buzoietan aurkituko dituzun esku orriak bete ditzakezu eta bertan utzi berriz ere. Buzoiak Villabona-n Liburutegian eta Kiroldegian; Iruran udaletxean; Anoetan udaletxean eta Kiroldegian; Tolosan Kultur Etxean, udaletxean, Musika Eskolan eta Kiroldegian; Ibarra-ndaletxean eta Kultur Etxean; eta Leitza-n Kiroldegian eta udaletxean daude.

Buzoiez gain, hala ere, badago 'Berria' eta HITZA 15 egunez doan jasotzeko beste modurik ere. Telefonoz egin daiteke, 943-30 43 45 zenbakira deituta edo mailez, harpidetza@berria.info mezua bidalita. www.zuzaraberria.info

webgunearen bidez ere egin daiteke.

Interneteko aldaketak

Papereko aldaketekin batera Internetera ere indartu dugu.

Batetik, Berriketan.info komunitate irekia sortu dugu, informazioa oinarritutako sare soziala, alegia. Komunitate honetan kazetariak hartzen dute parte, bai, horretaz gain, irekia dago gai-nontzeko kazetari eta edozein erabiltzaile euskalduni. Helburua da euskarazko informazioaren topagune eta eztabaidagune izatea. Nahi duenak aukera dauka bere soslai Twitter eta Facebook-eko soslaiekin automatikoki lotzeko, eta Berria.info-n txertatuko da horko informazioa.

Berria.info webgunea ere berri-

tu dugu. Etengabeko edizioari lehenetasuna emanez, gaur egungo eguneraketaren kopurua handitu da: hamahiru albiste izaten ziren lehen, eta 40-45 albiste izango dira hemendik aurrera. Albiste labur-rrak izango dira, flash moduan landutakoak.

Gertakariak eta ekitaldiak zuzenean kontatuko dira (testuen eta ikus-entzunezkoen bidez); zuzeneko albisteak sustatuko dira ('Twitter sistemaren bidez'); beste atal batean, informazio arinagoa eta aisialdiari lotutakoa jasoko da: bideoak, argazkiak, Interneteko euskal munduan dauden artikul-ulu interesgarrietarako loturak, eta teknologia berriei, Interneti eta zientziari buruzko albisteak bilduko dira.

Gure webgunea

Guri dagokigunez eskualdeetako HITZAK ere izango dute euren ga-rapena sarean, eta herritarren-gandik are hurbilago dagoen in-formazio emango dugu.

Herri bakoitzak webgune pro-pioa dauka orain. Tokian tokiko HITZA horietan argazki galeriak, bideoak, audioak, PDFak, Twitter jarioak eta abarrak inte-gratu ditugu.

Horiek horrela, tolosaldea.hitza.info atariaekin batera, Tolosako (tolosa.hitza.info), Alegialdeko (www.alegialdea.hitza.info), Anoetaldeko (anoetaldea.hitza.info), Ibarraldeko (ibarralde.hitza.info), Leitzaldeko (leitzalde.hitza.info) eta Villabona-Aiztondoko (villabona-aiztondo.hitza.info) orriak ere aurkitu-ko dituzu webgunean. Informazio gehiago nahi baduzu sartu www.zuzaraberria.info webgune-ra.

Agurrak

agurrak urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak, jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

kan kak

Azaroaren 30 arte %10eko deskontua iragarkia erakutsiaz

%10 deskontua

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46